

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **29/2020 Mozioa, ekainaren 17koa, COVID-19aren alarma-egoeraren deseskalatzearen barruan gizarte-zerbitzuetan hartu beharreko neurriei buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko ekainaren 17an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

29/2020 Mozioa, ekainaren 17koa, COVID-19aren alarma-egoeraren deseskalatzearen barruan gizarte-zerbitzuetan hartu beharreko neurriei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote alarma-egoera bukatu ondoren, ohitura berriak ekarriko dituen normaltasunerako prozesuan, hartzen diren premiazko neurri guztiak zuzenean inplikaturik dauden gizarteko eta sindikatu-eragileen adostasunarekin har daitezela.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote deseskalatzea bukatzen denerako kontingentzia-plan bat presta dezala, SARS-CoV-2 koronabirusari aurre egiteko, hala GOFEn laguntza-esparruei nola INDESA 2010 SLren laguntza-esparruei zuzendua, egon litezkeen agerraldi berriei aurrea hartzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ziurtatzeko egoitza-zerbitzu sozialetako zentroyen eta eguneko zentroyen erakunde titularrek bete egiten dituztela instalazioak desinfektatzeko eta egokitzeko neurriak, baita ezarritako prebentzio neurriak ere. Zehazki, ziurtatu beharko du ohiko jarduerak gauzatzean uneoro gordetzen direla kutsatze-arriskuak prebenitzeko baldintzak.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ziurtatzeko zentroyen erakunde titularrek COVID-19ari aurre egiteko kontingentzia-planak dituztela. Plan horien xedea izango da egoiliarren, langileen eta haiekin harremanetan dauden pertsonen artean egon litezkeen kasu posibleak goiz hautematea eta, bidezkoa denean, koordinazio-prozedurak aktibatzea dagokion osasun-zerbitzuko egiturarekin.

5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote biltegi bat gai dezala, etorkizunean egon litezkeen COVID-19aren agerraldi berrien aurrean beharrezko babes-neurriak bermatzeko beste materialekin.

6. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jardunbide egokien gida bat izan dezala, gizarte-baliabideek COVID-19ari aurre egiteko gauzatu dituzten esperientzia arrakastatsuetan oinarrituta.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 17a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**